



LEZEAREN OROIMENA*

- Mintzaldi zikloa Sarako lezeetan -

2022an hasitako gaualdi-mintzaldien arrakasta ederraren ondotik, "Lezearen oroimena" programaren ziklo berri bat abiatzen dugu!

Aurten ere, gure nahia izan da denek gure historiaren zatiak ezagutu edo berraurkitu dezaten. Mintzaldiak, euskaraz edo frantsesez izanen dira (hizlarien arabera), urrik eta denei irekiak.

Hilabete behin, ostiraletan, adituak edo/eta sutsuak Sarako lezeetara hurbilduko dira beren gai gustukoaren inguruko aurkikuntzak eta ezagutzak partekatzerara.

Arbasoen gizarte-bizia, naturarekin elkarrekintza, ohituren eta sinesmenen transmisioa... gure iragana, gure ondarea eta gure kulturaren sustraien ezagutzeak gure egungo gizarte-biziaren oinarriak hobeki ulertzeko aukera ematen digu.

Uste hori, Jose Miguel de Barandiaran antropologoarekin partekatzen dugu eta berak erraten zuen bezala : « Etnia gisa, eduki dezakegun gaitasunik onena, gure iragana ikuspuntu historiko eta kultural batetik ulertu, gatozen tokiaz eta izan dugun esperientziaz kontziente izan eta, iragana zeharkatu duena ikastea da. [...] Zeren, segur eduki dezakegu ez garela gibelera joaten ahal, ez eta beharko ere. Gainera, Euskalduna ekinzalea izan da beti, geroa gogoan. Baina eraginkorra izan nahi badu, nondik datorren eta honaino iristeko nondik iragan den jakin behar du. »

Zergatik Sarako lezeetan ?

Milaka urtez geroztik, Sarako Lezea gure arbasoen gizarte-biziaren lekuko eta zenbaitetan eragile izan da. Zibilizazio baten sortzea, aldatzea eta inguruko naturarekin bat egitea ikusi du. Baita ere gure arbasoek espazio naturala nola baliatzen zuten bizitzeko, jateko, nekazaritzan, artzaintzan eta gizarte-bizia nola zabaldu zuten. Bai eta sinesmenak, mitoak eta erritoak, gizakiaren eta naturaren arteko loturatik nola sortu eta zabaldu ziren, iragan ez hain urrunera arte...

Hori guzia ikusi du Lezeak, baina Lezea ez da mintzatzen... Zorionez, gai guzi hauek historian, ikertzaile, zientzialari eta sutsu ainitz interesatu dira eta Sarako inguruetan ikerketa arras zabalak egin dituzte.

Horregatik, topaketa eta hitzaldi sorta bat antolatu nahi izan dugu adituekin Sarako lezeetan, beren ezagutza azalduz, jende gehienek ulertzeko gisan, bakoitzak bere arbasoen historia eta bizimoldea ezagutzeko, bere ondarea berreskuratzeko eta kultura aberasteko.

Gaualdi goxoak partekatzearen eta ezagutzaren transmisioaren seinalepean, hurrupaldi partekatu batekin bururatuko direnak !

2023ko EGITARUA (aldaketa batzuren baldintzapean), SARA KO LEZEETAN:

MAIATZA

XARETAKO LEZEEN GEOLOGIA

Pierre MAURIAUD-k aurkezturik (CPIE Euskal Itsasbazterra).

Noiz: **maiatzaren 26an, ortziralea, 19:00etan.**

Hizkuntza: **frantsesa.**

Gaualdi berezia Geologiaren Egun Nazionalen kariatara!

Pierre Mauriaud geologoak Xaretako haitzuloen konparaketa (Sara, Urdazubi, Zugarramurdi) eta ikuspen geologiko bat azalduko digu.

Mintzaldiaren ondotik, Lezearen esplorazio labur bat izanen da!



EKAINA

AKELARREAREN ITURBURU MITIKOAK

Anuntxi ARANAK aurkezturik.



Noiz: **ekainaren 23an, ortziralea, 19:00etan.**

Hizkuntza: **euskara (frantsesez itzulia aldi berean).**

Jondoni Joane bestaren bezpera honetan, Anuntxi Arana antropologoak akelarrearen iturburu mitikoak aurkeztuko dizkigu.

Akelarreak egiazki egin ote direa? Haien praktika ez da beharrezkoa egiazkotzat hartuak izan daitezten. Alabaina, sineste zaharretan badituzte aurrekari nahikoak kondaira bat osatzeko eta mito gisa transmitituak izateko...

UZTAILA

GAUENARAREN NAZIOARTEKO GAUA

« Conservatoire d'Espaces Naturels » (Ingurumen Naturalen Kontserbatorioa) elkarteak aurkezturik.



Noiz: **uztailaren 28an, ortziralea, 20:00etan.**

Hizkuntza: **frantsesa.**

Ugaztun honen aurkezpena egin ondoren, Sarako lezeetan duten garrantziaz ohartuko gara, eta sarrerako ataripean egonen gara, ilunpetan, janari bila egiten dituzten irteerak so egiteko !

Ondoren, aurkezpen film bat izanen da, baita “CEN” solasaldia ere, elkarteko aditu batekin.

AGORRILA

ONDARE HISTORIKOA ETA NATURALA ELKARTZEN DIRENEAN...

Imanol AMESTOY-ek gidaturik (CPIE Euskal Itsasbazterra).



Noiz: **agorrilaren 11an, ortziralea, 09:00etan.**

Hizkuntza: **frantsesa.**

Atera gaitezen mintzaldien erremutik eta ikus dezagun gure ondarea aire zabalean!

Imanol Amestoy-ek, CPIEko adituak, paisaiaren irakurketa bat proposatzen digu Sarako lezeen inguruetan, bertan aurkitzen diren aberastasun natural eta arkeologiko ezezagunak nabarmentzeko asmoz, eta gizakiaren eta mendiaren arteko elkarbizitza erakusten dutenak.

Iragana ulertzeko parada paregabea, etorkizuna hobeki eraikitzeko...

KONTRABANDA



Noiz: **agorrilaren 25ean, ortziralea, 19 :00etan** (ordua baieztatzekoa da).

Hizkuntza: **frantsesa / euskara.**

60. kontrabandisten lasterketaren karietara, animazio berezi bat izanen da Sarako lezeetan. “Gau lanaren” lekukoek eta aktoreek kontatuko digute mugaren bi aldeetan kontrabanda egiten zen garai honetaz.

Xehetasunak 2023an zehar jakinaraziko dizkizugu.

BURUILA

LEZEEN MUSIKA



Jean-Claude ENRIQUEk aurkezturik.

Noiz: **buruilaren 22an, ortziralea, 19:00etan.**

Hizkuntza: **frantsesa.**

Jean-Claude Enrique-k musika-tresna batzuen historia eta jatorria aurkeztuko ditu, Paleolitikotik gaur egun arte izan diren bilakaerak erakutsiz!

URRIA

LURPEKO FAUNAREN ESPLORAZIOA

Jacques CHAUVIN-ek aurkezturik.



Noiz: **urriaren 20an, ortziralea, 19:00etan.**

Hizkuntza: **frantsesa.**

Jacques Chauvin bioespeleologoak aurkeztuko duen mintzaldia, Lezearen miaketa labur batekin!

Euskal Herrian denek badakite laminak, herensugeak edo beste izaki mitologiko batzuk bizi direla lezeetan! Eta, hala ere, ez dira lur azpian bizi diren bakarrak... Animalia ttiki ainitz ere badaude kobazuloetan eta lurpeko uretan. Sarako lezeak lurpeko biodibertsitate horren adibide nabarmenetako bat dira. 70 espezie inguru bizi dira bere lurpeko galerietan, eta horietatik hamabost bat endemikoak dira eta Sarako lezeetan bakarrik atxemanak izan dira!

KOMUNIKAZIO EDUKIAK ESKURATZEKO:

Komunikazio eduki batzuk ondoko loturen bidez atxemanen dituzu:

- **Afitxa frantsesez:**
https://www.grottesdesare.fr/lezearen_oroimena/affiche_lezearen_oroimena_2023.png
- **Afitxa euskaraz:**
https://www.grottesdesare.fr/lezearen_oroimena/affiche_lezearen_oroimena_2023eu.png
- **Gaualdi bakoitzeko irudi karratua:**
 - **Frantsesez:** https://www.grottesdesare.fr/lezearen_oroimena/visuels_carres_2023_fr.zip
 - **Euskaraz:** https://www.grottesdesare.fr/lezearen_oroimena/visuels_carres_2023_eu.zip
- **Argazki batzuk (Sarako Lezeak eta mintzaldien gaiak):**
https://www.grottesdesare.fr/lezearen_oroimena/kit_photos2023.zip

--- Gaualdien egitaraua finkatuko da urtean zehar ---

HARREMANETAN JARTZEKO :

- **Fabrice IPARAGUIRE**, Sarako Lezeen zuzendaria :
Tel: +33 6 81 33 51 60 - Eposta: lezea@grottesdesare.fr
- **Argitxu ACHERITOGARAY**, komunikazio digitala :
Tel: +33 6 70 08 19 52 - Eposta: argitxu@grottesdesare.fr